

UDALBILTZA. Hainbat alorretako eskubideak zehazten eta finkatzen ari da erakundea, hainbat eragilerek

Eskubideen Agiria zehazten hasi da Udalbiltzako Batzorde Eragilea

Palestinara ordezkari bidaliko du uztailean, udalen arteko harremanak bultzatzeko xedez

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Hainbat alorretako eskubideak zehazten eta finkatzen hasi da Udalbiltzako Batzorde Eragilea, euskal eragileen laguntzaz eta ekarpenen bidez, Eskubideen Agiria osatzea helburu hartuta.

Oskar Goñi Batzorde Eragileko bozeramaileak atzo Iruñean

komunikabideen aitzinean esandakoaren arabera, Agiriak jasoko dituen alorren artean daude euskara, kultura, irakaskuntza, informazio eskubidea eta hedabideak, gizartea eta ekonomia, natur baliabideak, eta eskubide politiko eta zibilak.

Arlokako gogoeta guztiok hiru atal izanen dituzte: sarrera historikoa, eskubideen zerrendatzea eta horiek egikaritzeko proposamena. Agiriaren erredakzioaren ardura abokatu talde batek hartu du, eta heldu den abenduan plazaratuko da. Goñik esan zuenez, Batzorde Eragileak garrantzi berezia emanen dio gatazka gainditzeko konpromisoari. «Miarrizten



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Oskar Goñi Udalbiltzako Batzorde Eragileko partaideak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Iruñean.

abiatutako ekimenetik, hainbat harreman izan ditugu, eta horien bildumatik ere Agiriari ekarpen garrantzitsua egin nahi diogu», azaldu zuen Oskar Goñi bozeramaileak. Eskubideen Agiriaren eztabaida bultzatzeko eta emaitzak biltzeko ehun hau-

tetsi prestatu ditu Udalbiltzako Batzorde Eragileak.

Palestinara bidai

Batzorde Eragileak erabaki du Palestina eta Euskal Herriko udalen arteko harremanak bultzatzea. Horretarako, Udalbi-

tzak ordezkari bat joanen da hilabete honetan Palestinara. Gisa berean, Genevako NBEko Giza Eskubideen Batzordean eta Estatu Batuetako San Franzisko hirian egingen den NABOren Kongresuan parte hartuko du erakundeak.

LAGURRAK

Mujika zinegotziari omenaldia egingen dio UPNk, hilaren 14an, Leitzan

Jose Jabier Mujika ETAk Leitzan hildako zinegotziari omenaldia egingen dio UPNk, hilaren 14an, Leitzan. Egun horretan, hilketa-aren lehenengo urteurrena beteko da. Omenaldia herriko elizan eskainiko zaion mezarekin hasiko da. Gero, elkarretaratzea egingen du UPNk, hildakoaren etxeraino. Omenaldian, Miguel Sanz Nafarroako eta UPNko presidentea egonen da.

PSN ez dela «benetako alternatiba eta galduta» dagoela esan du Catalanek



Alberto Catalan UPNko idazkariak PSNren lanaldi politikoa salatzen du. Catalanek dio sozialistak ez direla «benetako alternatiba», ez dutelako UPN garaitzeko behar adina sostengu. PSNk erregionalistekin aurrekontuak hitzartu gabe utzita ordu arteko bide «egokia galdu» zutela uste du Catalanek. PSNk hartu «konfrontaziorako joerak» Batasuna Legebiltzarreko «epaile» bilakatu duela salatzen duen erregionalistak. Halaber, PSNk «EA-EAJ, IU, Aralarrekin batera» eskain dezakeen alternatibaz gogoeta egiteko eskatu die herritarrei.

ANV-EAEk, urtero bezala, omenaldia egingo die Albertiako batailako gudariei

1936ko azaroan Albertia mendian frankisten aurka borrokatu ziren gudariak omenduko ditu ANV-EAE alderdiak, eta haien artean Bautista Uribe durangarrak aipamen berezia izango du aurten. Albertiako oroitarrian ekitaldia egingo dute uztaillaren 14an, *Atzo eta gaurko gudarien alde, borroka darrai: independentzia* lelopean, eta gonbita egin diote ezker abertzaleari.

Biktimekiko elkartasun jardunaldietan parte-hartze handia izan dela dio BAKek

Bakearen Aldeko Koordinakundeak biktimekiko elkartasunari buruzko jardunaldien arrakasta azpimarratu du. Bilbon aste honetan egin diren saiootan, ETaren jomuga diren hainbat pertsonak euren lekukotasunak agertu zituzten; besteak beste, Gotzone Mora eta Teo Santosek. Taldearen ustez, «testigantzen aniztasunak eta indarrak jendearen esker ona» ekarri zuten.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Kepa Badiola, atzo, herrikideen ongietorria jasotzen.

EUSKAL PRESOK. Frantziak kanporatu berri du

Herritarrek ongietorria eman diote Badiolari, Ondarroan

Erredakzioa | BILBO

Frantziako Estatuak herenegun kanporatu ondoren eta gaua Gironako Figueres herrian igaro ondoren, Kepa Badiola preso eta errefuxiatua atzo itzuli zen Ondarroara, bere herrira.

Badiola arratsaldeko zortziak aldera iritsi zen Ondarroara. Alameda plazan bostehun bat lagun zituen zain, eta han herrera ekitaldi xumea eskaini zioten auzotarrek. Gero, manifestazioa egin zuten.

Frantzian zazpi urteko kartzela zigorra bete ondoren, jendarmek Port Bouko mugan askatu zuten, anbulantzian. Handik Figueresko erietxera eraman zuten senideek, hilabete osoa gose greban eman ondoren ahul zegoelako. Medikuek ikusi ondoren, bere kabuz irten zen, eta etxera etorri aurretik gaua Figueresen ematea erabaki zuen.

Hilaren 13an, Ondarroako Udalak ongietorria emateko ekitaldi handia egingo du.